

## 1. BALIO PROPOSAMENA

“MEMORIES” da gure proiektu berriaren izena.


Duela urte batzuk, mugikorrek ez zeudenean edo hitz egiteko bakarrik balio zutenean, argazkiak ateratzerako orduan guztiak inprimatu egiten ziren eta edozein albumetan edo kaxetan gordetzen ziren oroitzapen horiek. Gaur egun, argazki guzti horiek mugikorrean gordetzen ditugu eta albumetan gordetzearena oso atzean geratu zaigu. Orduan, lagunengan artean hitz egiten geundela, lagun bati mugikorra apurtu eta argazki guztiak galdu zituela komentatu zigun. Gainera, gaur egun oso modan dago zure logelan argazkiak betetako pareta bat edukitzea eta hori egiteko argazkiak ordenagailura pasa behar dira gero denda batean inprimatu ahal izateko eta hori egitea kostuak igotzen ditu. Horregatik hiru lagunengan artean arazo horri konponbide bat bilatzea lortu genuen.

GURE enpresa sortzea pentsatu dugu MEMORIES izeneko produktua ekoizteko. Baina, zertan datza proiektu hau? Aurretik esan dugun bezala, gaur egun argazki guztiak mugikorrean gordetzen ditugu baina jendeak ere argazki fisikoak edukitzea gustuko ditu eta lan ikaragarria da ordenagailura pasatzen egotea gero denda batean inprimatzeko. Horregatik mugikorrean bertan inprimatzeko aukera izatea pentsatu dugu. Hau da, aurikularrentzako sarrera bat dagoen bezala edo mugikorra kargatzeko sarrera dagoen bezala, argazkiak inprimatu ahal izateko sarrera bat egotea. Laburbilduz, mugikor normal bat izango litzateke, argazkiak inprimatzeko aukera izango duena eta mugikorretik argazkia jarraian ateratzeko.

Merkatuan produktu hau ekoiztean lehenengoak izango gara hau da produktu berri bat sartuko dugu merkatuan. Gainera eskuragarritasunari dagokionez online denda bat izango denez mundu osora bidaltzeko gai izango gara.

Prezioari dagokionez, merkatura sartzeko orduan edukiko duen eraginaren arabera jarriko diogu. Aurretik produktuari buruzko marketin politika batzuk egingo ditugu eta bezeroengan duen eraginaren arabera produktuaren prezioa adostuko dugu. Kalitatearen arabera, mugikor normal baten kalitatea edukiko du, mugikor bat egin ahal dituen gauza guztiak egiteko gai izango dena eta gainera argazkiak kalitate bikainean aterako dira eta koloreak erabiltzea posible izango da.

Diseinuari dagokionez mugikor baten tamaina izango du hau da ez da zabalagoa izango inprimatzeko sarrera hau edukitzeagatik.



Idea bat egiteko, estilo horretako mugikor bat izango litzateke eta alde batean sarrera bat izango luke argazkiak ateratzeko. Mugikorra 15x7 cm-koa izango litzateke gutxi gora-bera

eta argazkiak gehienez, 12x8 cm-koak izango litzateke baina gero argazki txikiagoak egitea posible izango litzateke.